

Fratelli tutti



JOSE IGNAZIO ANSORENA
TXISTULARIA

Fratelli tutti. Kristau katolikoon gidari nagusia den Frantziskoren azken entziklikaren izenburua da. Poz handia eragin du komunitate kristauan, *Laudato si* aurrekoak bezala. Biek ala biek, García Márquez-en obra famatua gogoan, *Maitasuna COVID-19aren garaietan* azpigitulu izan lezakete.

Fratelli tutti. Kosta egiten da *tutti* hori irenstea. Santi Abascal legebiltzarrean biktimen zerrenda destilatzen, Melitón Manzanos torturatuak biktima agertzen delarik. Nigeriako polizia sarraskigilea edo Estatu Batuetako beltz akabatzaileak. Emaztea asesinatzeagatik espetxean izan eta baimenaz ateratakoan neska laguna akabatzen saiatu dena. Gehiegikeriez haur eta gazteak bizitza osorako markatu dituztenak. *Fratelli tutti*.

Justiziak atzera bota ditu Eusko Jaurlaritzak pandemiaren kontra proposatutako neurri batzuk, legezkoak ez direlakoan, eta honen ordezkariak haserre epaileekin. Dugun sistema judizialaren eskasia guztiekin ere, nahiago diktadura? Azkenekoa gainera kentzea berrogei urte kostatu zen eta, ustez

Espetxeetan diren presoak. Hauen sufrikarioarekin min hartzen dutenak eta ziegetan hiltzen direnean pozten diren bihotz lehorrak. *Fratelli tutti*

amaitu zenetik ia berrogeita hamar pasa arren, oraindik sufritzen ari gara ondorioak. Politikariak eta epaileak. *Fratelli tutti*.

Guretzat ulergaitzak diren bizimodu edo sexu aukerak dituztenak, bizitza hoberen bila gure herrialdeetara datozenak, pobrezia edo gerratik ihes. Kaleetan botata dauden drogazale eta eskaileak, edo mozkorrak. Baita horien aurka jarduten direnak ere. *Fratelli tutti*.

Diotenak: "Nik hori berehala konponduko niake..." eta jarraian dagokion astakeria (Lau ostia eman, izugarrizko isuna jarri, espetxerako neurrigabeko

zigorrak...). Dena berehala konpondu ustez den-dena lardaskatzeko ahalmena dutenak. *Fratelli tutti*.

Ostalaritzan, kulturaren, industrian, hezkuntzan, alor askotan krisi hau hainbestearino pairatzen ari diren langile eta enpresario zintzoak. Eta horien arteko zirrikituetan ezkatzen diren zital zurrupatzaileak ere bai. *Fratelli tutti*.

Espetxeetan diren presoak. Hauen sufrikarioarekin min hartzen dutenak eta ziegetan hiltzen direnean pozten diren bihotz lehorrak. *Fratelli tutti*.

Entziklika honek jabetza pribatuaren eskubidearen gehiegizko eta bidegabeko erabileraren salaketan euren aberastasunak arriskuan sentitu eta Frantziskoren aurka sekulako kanpainak, sareetan eta bestelakoetan, finantziatzen dituztenak. *Fratelli tutti*.

Eta, *hala ere* –hau Leteri kenduta–, *fratelli tutti*. Zaila da ulertzea eta gaitzagoa onartzea. Baina horixe du ezagurri Nazareteko Jesusen mezuak: *fratelli tutti*. Bedeinkatua Zu, Goi-Goikoa, kontu hauek jakintsuei eta adituei gorde eta jende xumeari agertu baitizkiozu. *Fratelli tutti*. ●

ARGIA

Bizi nahi duen herria!

ARGIA.EUS/EGINARGIAKOA



Jende gehiagori
ahotsa emateko,
lagun gehiagorengana
heltzeko eta
eragiten jarraitzeko
EGIN ARGIAKOA!